

# Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Adimen emozionala, autodefentsa, batukada edota rap musika udazkeneko eskaintzan, Andoaingo Udalaren eskutik

2017ko irailaren 29a, 537 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

JABEKUNTZA ESKOLA

## Urnietan jaietan murgildu da

Asteazken arratsaldeko ekitaldiekin, hasiera eman diete Sanmielei.

Igandera bitarte, hitzorduak bata bestearen atzetik kateatuko dira. Hutsunerik ez da izango, aspertzeko tarterik ere ez. Kiro-la, musika, gastronomia... Urnietako Udalak eta herriko eragile ezberdinek egitarau oparoa antolatu dute. Igandean jaiaren hotsak itzaltzen hasiko dira San Juan plazan. Biharamunean, jaiaren lekukoa Xoxokako bizilagunek hartuko dute.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Urdanbor taldeak larunbat arratsaldean eta gauean kalejira bana egingo du.

### “Galdeketa fest” Andoainen

Andoain Esan taldeak azaroaren 5erako antolatutako herri kontsultaren galdera aurkeztuko du, igande eguerdian.

[ANDOAIN, 3. ORR.]

### Kalegiroan jaialdia Andoainen

Asteburu honetan eta hurrengoan ikuskizunak herriko kale eta plazatan.

[AGENDA, 8. ORR.]

### Urnietako euskaltegia zabalik



Astearte arratsaldean euskaltegi berriaren irekiera ekitaldia egin zuten, Errekalde kalean.

[URNIETA, 2. ORR.]

## Moda eta euskara zikloa Andoainen



Marzol, Azpiroz, Guarrotxena, Alonso eta Jimenez zikloaren aurkezpena.

Andoaingo Udalak modari eskainiko dio datorren astea, zazpi eguneko ekitaldi ugari antolatuz. Ekimen berri bide-lagun izan dituzte moda ogibide duten andoaindarrak. Besteak beste, Irati Guarrotxena eta Fanny Alonso diseinatzaileak edota Maddalen Marzol lurrintetan aditua. Eta haiekin batera, nola ez, Andoaingo merkatariak. Astelehenean hasi eta igandera bitarte taile-

rak, mahai-inguruak eta kultur jarduerak ezberdinak iragarri dituzte, eta baita merkatari-tza sustatzeko Gau Zuria delakoa ere. Urriko lehen larunbatean Juanita Alkain plazan eta hainbat dandatan ordutegia gauerdira arte zabalduko dute.

Zikloaren helburuari erreparatuta, modaz askotxo hitz egingo da egunotan. Eta, gainera, euskaraz.

[ANDOAIN, 3. ORR.]

# Modan da Euskara '17

## URRIAREN 2tik 7ra

Andoaingo Bastero kulturgunea, Juanita Alkain plaza eta Kale Nagusian zehar



Modan da Euskara asteko programa osarik ikusgai:

[www.andoaindaraeuskaraz.eus](http://www.andoaindaraeuskaraz.eus)





## EUSKARA

# AEK euskaltegiaren irekiera ekitaldia Urnietan

Errekalde kaleko lehen zenbakian AEKk euskara erakusteko euskaltegia ireki du, Urnietako Udalaren laguntzarekin. Sanmielen atarian irekiera ekitaldia egin zuten, eta hizlari guztiek ere garran-

tzia handia eman zioten ekitaldiari. Euskara ikastea gaurko egunean gertuago eta errazago dago Urnietan. Dagoeneko ikasle asko ari da ikasten, baina kide berrietara zabalik daude.

*Bertso pare bat kantatutzeko aukera eman didate, euskaltegiaren irekierak ez nau ez tristetzen bate. Urnietako Udalak badu laguntzeko borondate, euskara ez da soilik bakarrik agur edo gero arte (bis).*

*Etxe ta kanpo ama hizkuntzak badu bai hainbeste mamu, baina Udalan dirulaguntza gerta dagokizu amu, baina euskara ikasten dunak ez da ez izango damu. Gaur edo bihar esango du: Lehenago ikasi banu! (bis).*

**Fermin Argiñarenaren** bi bertso eder horiek entzun ziren Urnietako AEK euskaltegiaren irekiera ekitaldian. **Mikel Pagola** alkateak aurkeztu zuen ekitaldia, poza agertuz: "Guretzat egun pozgarria da. Euskaltegia berehala hasiko da lanean, talde bat baino gehiagorekin". **Maripi Sarasola** euskara zinegotziak hartu zuen bere lekukoa, irekiera ekitaldian: "Oho handia da niretzat. Nire bizitza osoan irakasle lanetan aritu naiz, euskara ar-



**Mikel Pagola, Maripi Sarasola, Janire Urrestarazu eta Mertxe Mugika** hizlari aritu ziren.

datz nuela, gure haurtxoei heziketa euskaldun bat emateko asmoz. Lehen ere Udalak euskara ikasi nahi duten herrikideei laguntza eman die, baina beti ere beste herri batetara mugitu behar zuten. Orain, ordea, ikasle horiei herrian bertan eman nahi diogu aukera hori, Urnietan bertan euskaltegia zabalduz. Deialdi

berezia luzatu nahi diet euskara ikasi nahi duten guztiei". **Janire Urrestarazu** euskara irakasleak Urnietan euskaltegia izatearen premia hizpide izan zuen: "Pausoz pauso, Adarra eta Buruntzaldeko mingainak dantzan jarri nahi ditugu. AEKk eta Udalak abian jarritako egitasmoaren azken geltokia zein den argi

daukagu: euskararen bitartez, baliabideak emanez eta gozaraziz Urnietako biztanleak euskalduntzea". Amaitzeko, **Mertxe Mugika** AEK-ko koordinatzaile nagusiak esker ona adierazi zien Udalari eta eskualdeko irakasleei: "Eskerrik asko Urnietako Udalari, orain bi urte hasitako bideari amaiera eman diogulako. Eskualdeko irakasle taldeari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Elkarlana da bidea, eta gaur berriro ere elkarlanaren adibide bikaina daukagu".

#### ESKAITZA ZABALA EUSKALTEGIAN

- Asteaz 2, 3 edo 4 egun aukeran.
- Ordutegi zabala.
- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.
- Autoikaskuntza: Tutoretza eta programazio pertsonalizatuak.
- Talde presentzialak, jarraipen pertsonalizatuak.
- Azterketen prestaketa: EGA, IVAP, IRALE,...

#### URNIETAKO AEK

Errekalde kalea 1, tarteko oina.  
607 610 687 / 607 592 864.  
hernani@aek.eus.  
Bulego ordutegia:  
09:00-13:00 Astelehena, asteazkena.  
17:30-19:30 Asteartea, osteguna.



Irekiera ekitaldia eta gero zizka-mizkak eskaini zizkieten ekitaldira hurbildutakoel.



AEK euskaltegia, Errekalde kaleko lehen zenbakian.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



“Modan da Euskara” zikloa Andoaingo Udalaren eskutik

## Modari eskainitako zikloa urriaren 2tik 7ra



Atzean, Urtzi Azpiroz (Urtzi Alkain), Maider Lainez eta Petri Romero PSE-EEko zinegotziak, Pili Jimenez (Muchas Telas) eta Fanny Alonso (Fanny). Aurrean, Maddalen Marzol lurrinetan aditua, Luis Angel Orte Salkin merkatarikari elkarteako presidentea, Ainara Rodriguez Udaleko Euskara zinegotzia, Jon Zulueta Enplegu eta Merkataritza zinegotzia eta Irati Guarretxena diseinatzailea (Letitare).

Moda eta euskara uztartu nahi dituen ziklo berria datorren astelehenean abiatuko da Andoainen, “Modan da Euskara” izenburupean. Andoaingo Udalak, Salkin merkatarikari elkarteak eta herriko hainbat moda diseinatzailek elkarlanean antolatu dute, jarduera ugari uztartuko dituztela iragarri: kale antzerkia, erakusketak, moda tailerra, musika, mahai-inguruak...

Ainara Rodriguez zinegotziak zikloaren helburu hirukoitza azaldu zuen: “Euskararen erabilera sustatzea eta euskararekiko estimua areagotzea, merkataritzaren jarduna sustatzea eta modaren ezagutza ahal den neurrian zabaltzea, Andoaingo sortzaileen lanak ezagutzera emanez”.

Jon Zulueta zinegotzia ere bai kor agertu zuen: “Merkataritza bizi eta sendo batek herria bizia egiten du, eta argi dago ekimenak merkataritza sektorea indartzen duela”.

Luis Angel Orte Salkineko presidentea elkartearen ekarpena zein den azaldu zuen: “Merkatariorik egunero erabiltzen dugun euskara, gurea sentitzen dugun, eta horrexegatik oso interesgarria ikusten dugun egitasmoa. Gure ekarpena kasu honetan, pintxo lehiaketan eta Gau txuriaren parte hartzea izan da”.

Herriko zenbait diseinatzaile gaztekin parte hartu dute zikloaren antolakuntzan. Maddalen Marzolek gazte eragileen ahotsa ordezkatu zuen: “Moda munduan ikuspegi ezberdinak dituz-

ten ahotsak biltzen saiatu gara, eta ziur naiz aberasgarriak gertatuko direla herritarrentzat”. Sorkuntza lantegiak antolatu dituzte, besteak beste. Irati Guarre-

txena diseinatzaileak gidatuko ditu horietako batzuk: “Bertan parte hartzen dutenek jantziak diseinatu ahal izango dituzte eta baita etxera eraman ere”.

### EGITARAUA

#### Urriak 2, astelehena

18:00 Sorgunea, lantegia Basteron: Fanny Alonso eta Pili Jimenez diseinatzaileak.

19:00 Hitzaldia Basteron: “Janzten zaren bezalakoa ote zara?” Aurkezlea: Urtzi Azpiroz diseinatzailea. Hizlaria, Alazne Izagirre psikologoa.

#### Urriak 3, asteartea

18:00 Sorgunea lantegia: Devore teknikaren bidez, zapia atontzeko aukera. Gidaria: Irati Guarretxena. Izena-ematea Atarian. Azken eguna: Irailak 29.

#### Urriak 4, asteazkena

18:00 Sorgunea, lantegia Basteron: Fanny Alonso eta Pili Jimenez diseinatzaileak.

19:00 Solasaldia Basteron: “Modaren ikuspegiak eta komunikazioa”. Aurkezlea: Urtzi Azpiroz. Hizlariak: Maddalen Aduriz irakaslea, Mikel Aramendi modeloa eta Maider Gorostegi kazetaria.

#### Urriak 5, osteguna

18:00 Sorgunea lantegia Basteron: Zapia atontzeko aukera, bigarren zatia. Gidaria: Irati Guarretxena.

#### Urriak 6, ostirala

17:00 Dokumentala Basteron: The true cost/benetako kostuak.

19:00 Solasaldia Basteron: “Josi eta atondu”. Aurkezlea, Urtzi Azpiroz. Hizlariak: Igor Uri Cristobal Balenciaga museoko kidea, Irati Guarretxena diseinatzailea eta Maddalen Marzol lurrinetan aditua.

#### Urriak 7, larunbata

11:00 Mahai-ingurua: “Moda astintzen”. Moderatzailea: Maider Gorostegi. Hizlariak: Igor Uri Cristobal Balenciaga museoko kidea, Jokin Aierregarai komunikatzailea eta Urtzi Azpiroz diseinatzailea.

13:00 Kale antzerkia Bastero eta Santa Kruz bitartean: Femmes.

17:00 Denda eta postuen irekiera, Gau Txuriaren hasiera. Kale animazioa Santa Kruz zubian, Basteron eta Juanita Alkain plazan.

19:00 Modeus pintxo lehiaketako sari banaketa Juanita Alkain plazan.

22:00 Mikel Urdangarin eta Esti Sistiagaren kontzertua Juanita Alkain plazan.

00:00 Gau txuriaren bukaera den-detan eta karpan.

## “Andoain Esan” taldearen ekitaldia, igande honetan



Irailaren 23an Basteron adostu zuten galdera aditzera emango dute.

Musikaz, janaz eta edanaz lagunduta, herri galdeketa galdera aurkeztuko dute igandean. Jendaurreko ekitaldia 12:00etan hasiko da Espigoian, eta antolatzaileek galderaren aurkezpena giro

alaitzuan egin nahi dutela iragarri dute. “Andoain esan” taldeak datorren azaroaren 5ean erabakitze eskubideari loturiko herri galdeketa antolatuko du, Bizkaiko hainbat herrietan bezala.

## EH Bildu, EAJ-PNV, Irabazi eta Ganemosen adierazpena

Andoaingo lau udal taldek (17 zinegotzitatik 12 dira) adierazpena onartu dute Kataluniako aferaren aurrean:

- 1 “Andoaingo Udaleko taldeok kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloeketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoak.
- 2 Andoaingo Udaleko taldeok Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behe-erantzuzko erantzunak eman behar direla oinarritzeko eta funtsezko askatasunen

errepresio-estrategia, demokraziaren oinarritzeko printzipioen aurkakoa.

- 3 Andoaingo Udaleko taldeok berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa –Espainiako Gobernuak gidatutako– pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiak.
- 4 Andoaingo Udaleko taldeok dei egiten dugu Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera”.

## Kataluniarekin elkartasuna



EH Bildu alderdiak Kataluniarekiko elkartasuna adierazteko elkarretaratzea deitu zuen, joan zen ostiralean. Zumea plazan egindako agerraldian Ainara Rodriguezek adierazpena irakurri zuen: “Processak aurrera egin ahala Espainiako estatuaren erantzunak agerian utzi du, beste behin ere, demokrazia bat izateko oso urrutiko dagoela. Mehatxuak, agintari politiko-

en jazarpena, hitzaldiak debekatzea, kartelak konfiskatzea... Astakeria juridikoak eta jarrera antidemokratikoak ikusten ari gara. Eta hori guztia Kataluniako herritarrek botoa ematea galarazteko egiten ari da Espainiako estatua, kataluniarrek beren etorkizuna modu libre eta demokratikoan erabakitzeko aukerarik izan ez dezaten”.



## SOLASALDIA BASTERON

# Rikardo Arregi gogoan

Rikardo Arregi kazetariaren eta euskaltzalearen jaiotzaren 75. urteurrenean, mahai-ingurua izan zen Basteron, Andoaingo Udalak antolatuta. Ariane Kamio Garako kazetariak gidatuta, astearte

arratsaldean Begoña Arregi Rikardoren arreba, Jose Manuel Toledo, Juan Mari Torrealdai eta Ramon Saizarbitoria hizlari aritu ziren.

Andoaingo Udalak etxe guztietan efemerideari loturiko gehigarria banatu du egunotan, **Ariane Kamio** Andoaingo kazetariak idatzi eta Gararekin argitaratu zena. Rikardo Arregi definituz ekin zion: "Gizon poliedrikoa zela ezin uka dakioko. Bere ekintzailetasuna muga desberdinak gainditzera eraman baitzuen bere bizitza laburrean. Euskara, alfabetatzea, pentsamendua eta kazetaritza landu zituen oso gaztetatik, eta berak utzitako arrastoak ez du gaurkotasunik galdu".

**Ana Carrere** alkateak hartu zuen hitza ondoren: "Hainbat adjetiborekin deskribatu dezakegu Andoaingo Seme Kuttun Rikardo Arregi, baina badago bat guztiak batu ditzakeena: euskaltzalea", adierazi zuen. Carrerek hainbati esker-erak eman zizkien erakutsi duten esku-zabaltasunagatik: Arregi Aranburu familiari, mahai inguruko partehartzailei, ekitaldira hurbildutako publikoari, eta Ariane Kamio kazetariari.

**Asier Burgaleta** eta Ariane Kamiok egindako "Rikardo Arregi: euskal garaikidetasun berria" dokumentala ikusi zuten jarraian. Bertan **Mikel Arregi**, **Bernardo Atxaga**, **Ibon Sarasola** eta **Ramon Saizarbitoria**ren testigantzak jasotzen dira, eta bereziki bi audio hunkigarri entzun daitezke bertan: **Gabriel Aresti** errezitatzen eta Arregi bera Usurbilen hitzaldia ematen.

## LEHEN DEFINIZIOA

Solasaldiaren txanda heldu zen dokumentalaren ostean, eta moderatzaileak Rikardoren ezaugarri bat emateko eskatu zien lauei, hasteko eta behin.

**Arregi:** "Xaxi-errotako eskolara eskutik eramaten ninduen hiru urte nituela, eta bion artean harreman berezia landu genuen horrexegatik. Zoritxarrez, oso denbora eskasean bizitu ginen elkarrekin, ze seminariora oso gazte joan zen, eta oportetan etxera etortzen zenean ere ikasketekin ibiltzen zen; gero, soldaduskara joan behar izan zuen... Nolanahi ere, senide bezala eta etxe giroan, esango nuke niretzako mutil zintzoa, atsegina, irribarretsua eta laguntzailea izan zela. Lau senideok ika-mikatan ibiltzen ginen, jakina, baina bera normalean ez zen sesio zalea. Gehiago zen elkarriketaren aldekoa, ondo konpontzearen aldekoa. Aita etxean zegoenean txorakeria gutxi izaten genuen, baina amarekin harreman estuagoa zuen, ama eta bera antzekoak ziren, goxoak".

**Toledo:** "Seminarioan ezagutu nuen, eta handik atera ostean, bere pentsa-



Begoña Arregi Rikardoren arreba, Jose Manuel Toledo, Juan Mari Torrealdai, Ramon Saizarbitoria eta Ariane Kamio Basteron, astearte arratsaldean.

mendua, egin nahiak eta egitasmoak azaltzeko deitu zidanean elkartu nintzen berarekin bigarren aldiz. Niretzako, adiskideaz izateaz gain, iparrorratza izan zen".

**Torrealdai:** "Rikardo hartzen dut lagun eta laguntzaile handizat; kulturgile peto-pettoa izan zen. Gidari gisa ezagutu nuen esparru guztietan, eta beti pena handi batekin geratu nahiz: zer eman zezakeen gerora, hasiera besterik ez baitzuen egin, 27 urte betetzeko hil baitzen".

**Saizarbitoria:** "Intelektual bat izan zen zentzurik zabalenean, kritikoa eta auto-kritikoa. Maite izan zituen arlo guztiekin izan zen kritikoa, eta ordaindu behar izan zuen horregatik. **Carlos Santamaria** esaten zuen gizon azkarra eta matematikari baten burua zeukala. Irekia zen, dibertigarria, atsegina... Alegia, ez zuela bat egiten intelektualez daukagun estereotipokoarekin, ezta hurrik ere. Dibertigarria zen, eta leku guztietan ondo pasatzeko modua egiten zekiena, eta esperientzia guztietatik ikasten zuena".

## AITZINDARIA, EZTABAIDEI HELTZEN

Torrealdai azpimarratu zuen 60ko hamarkadan, euskal giroan hiru eztabaida edo borroka ideologiko zeudela egiteko, eta bere ustez Rikardo izan zela lehena heldu ziena hiruei: "Politikoa zen Rikardo, baina politologo gisa funtzionatu zuen, eta gure belaunaldiak zeuzkan hiru krisiei adarretatik heldu zien. Lehenengoa, kristautasunarena izan zen. *Euskaltzalearen jainkoa hil behar dugu* artikuluan, ondo bereizi zituen kristautasuna eta politika; euskaldun-fededun esaldi famatua abertzale-tasun klasikoan zegoena, puskatu egin

zuen, eta sekulako haserreak eragin zituen. Jakin-en baja eman zuten harpidedun askok; halako bigarren aldia izan zen, lehenengoa, 1964an izan baitzen, euskara batuaren aldeko hautua egin genuenean. Dena esatera, gazte jendea hurbildu zitzaigun bietan".

Euskaltasunaren inguruko eztabaida izan zen bigarrena, Torrealdairen iritziz. "Euskaldun kalekumearen eta jakobinismoaren kontzeptuak aldarrikatu zituen Rikardok. Izan ere, euskalduna soziologikoki kalean bizi arren, ideologikoki, bere iruditeria, bere unibertsoa... base-rian zeukan txertatuta oraindik. Jakobinismoa aipatzen zuen, adierazteko ondo zeudela txokokeriak, euskalkiak... baina Euskal Herriak behar zuela planteamendu orokor bat, herri bezala.

Rikardok sakon heldu zion hirugarren eztabaida, irristakorragoa, ezker-tartasunaren, sozialismoaren eta marxismoaren ingurutik joan zen. Nire usretan, kristau demokraziatik sozialismo gizartiar baterako bidea egin zuen. Marxismoa onartu zuen baina ez marxismo materiala, dialektikoa baizik".

## MIRETSIA ALDE GUZTITATIK

Saizarbitoriak Rikardo Arregi ez zela sektarioa izan aldarrikatu nahi izan zuen mahai-inguruan: "Diktadurapean politika egitea oso sinplea da. Baina berak frankismoaren ondoren etorriko zena edukitzen zuen pentsamenduan. Beti aipatu izan dut behin nola esan zigun Andoaingo Goikoplazan egunen batean diputatua izango zela. Guk ez genuen pentsatzen politikaz, berak bai. Eta hortaz, dena kritikatu izan zuen, nazionalismoa sozialismoa, komunismoa... Jokabide horri eutsirik, ez zela sektarioa izan nabarmenduko nuke nik. Izan

ere, gizarte hartan Euskal Herrian sektarioak ginen, eta gara oraindik; ez atzo ezta gaur, ez ditugu ondo hartzen aurkari politikoak, eta gure kide ohiak traidoretzat jotzen ditugu. Giro hartan, abertzaleak ez ziren askorengana hurbiltzeko ahalegina egiten zuen Rikardok, eta ezkutuan egiten zituen bilerak horiekin; hori ez zen normala. Oso ona zen harremanetarako eta edozein giro-tara egokitzeko gaitasuna zuen".

## AMAIERA HUNKIGARRIA BEGOÑA ARREBARENTZAT

Begoña Arregi bera izan zen mahai inguruari amaiera eman ziona. Rikardok hil baino hogeitatu egun lehengo, **Zeruko Argia** aldizkarian, "Gazte naiz" atalean, Andoain hipside hartuta idatzi zuen artikulua irakurri nahi izan zuen, "Andoainen gaudenez, egokia ikusi dut *Andoain-darra naiz* artikulua irakurrik bukatzea". Hara pasarte: "Andoain zorionez, herri umila, izen handirik gabekoa. Horregatik maite dut gehiago. Horregatik nago harro nire jaioteriaz, ezagutzen baititut bertan lanean ari diren euskal militante zahar eta gazteak, eta horregatik gortzen dut Euskal Herriarengan esperantza. Egutero borroka isila, izen handirik gabekoa, hori da Euskal Herriaren eustaila. Gizon emakume eta beste horien izenak ez dira geldituko seguraski Euskal Herriaren historiaren orrietan, baina horiek egingo dute posible inork baino gehiago Euskal Herriak historia izaten jarraitzea".

Basteron bertaratutako jendeak txalo bero batez erantzun zion idatzia hunkituta irakurri zuen Begoñari. **Arregi Aranburu** familiaren izenean, esker ona adierazi zuen.

[KRONIKA, OSORIK: AIURRI.EUS]



# Has dadila gozamena



2017, iraila



2017ko  
*Sanmuelak*  
Urnieta



**Urnieta**ko Udalak  
gehigarri hau  
argitaratuz jairik  
zoriontsuenak  
opa dizkizue  
urnietar guztiei





# Super H festa

**TXIKIEN MENDI LASTERKETA IKUSGARRIAREKIN BATERA, JARDUERA OSAGARRIAK ESKAINI ZITUZTEN LARUNBATEAN.**



Jaietako argazkiak eta bideoak ikusgai aiurri.eus argazkian.



Mendi lasterta txikia San Juan plazan eraikitako ibilbide ederretik igarotzen da.



Apar festarekin amaiera eman zioten Super H jaiari.



Laguntzaile askoren lanari esker aurrera atera zen Super H festa.

# Bertso afaria

**IA BERREHUN LAGUN HURBILDU ZEN OIANUMERA, JAIEN ATARIAN OHIKO BILAKATZEN ARI DEN BERTSO AFARIRA.**



Igor Elortza eta Eli Pagola bertsolariak, atzean Haritz Zubillaga.



195 lagun bildu zen bertso afarira, joan zen larunbat gauean.

# Plazer hutsa

**EGAPE DANTZA TALDEAK HAMARGARREN URTEURRENEKO IKUSKIZUNA ESKAINI ZUEN BERRIRO, SAROBE ANTZOKIAN.**



Joan zen larunbat iluntzean emanaldiaren amaiera aldera ateratako taldeko argazkian.

# Compack sporting

**HOGOITA LAU TIRATZAILE ELKARTU ZIREN ARKALEN, HORIETATIK LAU EMAKUMEZKOAK.**



Santa Kruz elkarteak antolatuta, Sanmieletako Compack Sporting txapelketan parte hartze handia izan zen.

1. Unai Sarasola.
  2. Lazaro Oyarbide
  3. Iraitz Oyarbide.
- Emakumezkoak:
1. Maider Cambra.



# Egitaraua irailaren 28tik urriaren 1era

**TXUPINAZOA JAURTITA, JAIK ABIATU DIRA URNIETAN. ASTEBURUA IRITSI AHALA GIROTUZ JOANGO DA HERRIA, SAN MIGEL BEZPERAKO ETA EGUNEAN BERTAKO EGITARAU OPAROAREKIN. ASPERTZEKO TARTERIK EZ DA IZANGO URNIETAN, EGUNOTAN.**

## Irailak 28, osteguna Haurren eguna

- 09:30 Diana Txanbolinekin.
- 10:30 Alkate Txikien izendapena udal-  
txean: Eider Garcia Mujica eta  
Eñaut Egaña Egaña.  
Egape dantza taldeak belauntxin-  
goa dantzatuko du.
- 11:00-14:00 Puzgarriak eta jolas-apara-  
tuak Egape ikastolako jolasto-  
kian.
- 16:00-18:00 Urnieta Selfie! proba-jolasa.  
Gaztelekutik abiatuta, 11-16 ur-  
tekoentzat.
- 16:30-19:00 Puzgarriak eta jolas-apara-  
tuak Egape ikastolako jolasto-  
kian.
- 17:00 Mahai jokoen txapelketa zahar  
etxean, Denda Berrik antolatuta.
- 17:30 Malabare eta clown kale antzer-  
kia familia ikusleentzat: Philo &  
Jole konpainiaren "Mr. Pichichi"  
kale ikuskizuna San Juan plazan.
- 19:00-21:00 Xaibor diskofesta plazan.
- 20:00 Alkate Txikien botere uztea uda-  
letxean.
- 20:30-22:00 Patata tortilla lehiaketa  
txosnagunean.
- 23:00-00:30 Golden Apple Quartet pla-  
zan.
- 00:30 Gau jamaikarra txosnagunean:  
Bad Sound System eta Ziribulio  
Sound.

## Irailak 29, ostirala San Migel eguna

- 09:30 Diana Txanbolinekin.
- 10:45 Udal korporazioa udaletxetik eli-  
zara alkate soinua doinuarekin.
- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Udalaren omenaldia udaletxean  
Adarra-Usabelartza elkarteko urni-  
etarrei, 1996tik gaur arte egin-  
dako lanagatik. Aurrera Gure  
Ametza taldearen saioa.
- 12:00-14:00 Pil-pil erara egindako bakai-  
lao lehiaketa jaietako karpan,  
Aballarrik antolatuta.
- 12:30 Txanbolinen emanaldia ikaslee-  
kin batera, plazan.
- 14:00 Bazkaria Oianume jatetxean,  
Denda Berrik antolatuta.
- 18:00 Erraldoi eta buruhandiak.
- 18:30 Martin Mujika pilota jaialdia.  
Erremontea:  
A.Goikoetxea-E.Barrenetxea //  
I.Ansa-E.Urrutia.  
Eskupilota:  
A.Lertxundi-I.Aranalde //  
J.Loitegi-I.Odrizola.
- 19:00 Akelarreko sorginen dantza saioa  
San Juan plazan.
- 19:00 Futbito finala Egapen.
- 19:00-21:00 DJ Makalaren Diskofesta  
plazan.
- 21:00-23:00 Oilasko afaria. Txartelak  
Xauxar tabernan salgai.



lazko patata tortilla lehiaketaren irabazleak.

- 23:00 Egurra ta kitto!, Skakeitan eta DJ  
Komando Klitorix txosnagunean.
- 00:00-02:30 DJ Makala plazan.

## Irailak 30, larunbata Koadrillen eguna

- 09:30-12:00 Probintzia mailako bolo  
txapelketa, bolatokian.
- 10:00 Diana Txanbolinekin.
- 11:00 Kontzejupeko eskupilota txapel-  
ketaren finalak.
- 12:00 Apar festa Plazido Muxikan, egu-  
raldi onarekin.  
Parrillada Plazido Muxika pla-  
zan, Denda Berrik antolatuta.  
Pasai koadrillaren txarangaren le-  
hen irteera San Juan plazatik.
- 12:30 Trikipoteoa herrian zehar, San  
Juan plazatik aterata.
- 14:00 Emakume koadrillen bazkaria  
Kirodegiko tabernan.
- 14:30 Bazkari herrikoa txosnagunean.  
Txartelak Xauxarren salgai.
- 16:00-18:30 Txirrindularitza kriteriuma  
Idiazabal kalean.
- 16:30-18:00 Haur Ginkana Plazido Mu-  
xikan. Euriarekin Egape ikastola-  
ko aterpean.
- 17:00-21:00 Pasai koadrillaren txaranga-  
ren bigarren irteera.
- 18:00 Trapu zaharraren "A cal y canto"  
ikuskitzuna plazan.  
Iribarren orkestra Plazido Muxi-  
ka plazan, Denda Berrik antola-  
tuta.
- 18:30-21:30 Matraka elektrotxaranga  
Idiazabal kalean zehar.
- 19:00 Urdanbor danborradaren irteera  
Plazido Muxikatik.  
Dantza ikuskizuna Saroben: Au-  
rrera Gure Ametsa eta Castello-  
neko "El Forcat" elkarteak.

## KRISTINA AROZENA URNIETARRAREN DISEINU LANA



Jaien aurkezpen ekitaldian, Urnieta alkate Mikel Pagola pozik agertu zen aurtengo kartel lehiaketaren egilea urnietarra zelako. Epaimahaiak, lan guztien artean, Kristina Arozena herrikidearen lana aukeratu du.

Aurreko urteetako joera hautsi da horrela, kanpoko diseinatzaileak izan baitira jai egitaraua iragartzeko irudien egileak. Jaien atarian, David Rosco Sustapen zinegotziak irabazleari dago-  
kion saria eman zion.

Wu taok parrillan prestatutako pintxo eta edarien postua plazan.  
DJ Katxorrok girotuko du plaza, arratsaldean.

- 19:15 Urdanbor taldearen saioa elizan.
- 23:00 Garilak 26, Guda Dantza eta  
Lappa txosnagunean.
- 23:30 Danborradaren emanaldi nagusia,  
Idiazabal kaletik abiatuta.
- 23:30-01:30 / 02:00-03:30 London orke-  
stra plazan.
- 07:00 Jaixkipe txaranga kalean zehar.

## Urriak 1, igandea Arrosarioko amaren eguna

- 10:00 Kalejira Urnieta, Andoain, Lasar-  
te-Oria, Astigarraga eta Hernani-  
ko txistulariekin.
- 10:30-13:30 Perurekin Gobernu Kan-  
poko erakundeak txorizo eta sa-  
gardo postua jarriko du plazan.
- 11:00 Haurren danborradaren hasiera  
kalean zehar. Meza Nagusia.
- 12:00 Egapedanbor eta Presentación de  
Maria haur danborradaren elkargu-  
nea San Joan plazan.
- 12:30 Egapedanbor eta Presentación de  
Maria haur danborradaren elkargu-  
nea Plazido Muxika plazan.  
Ingurutxo eta Jalgi Plazara Jai-  
aldia plazan.  
Castellongo produktuen erakus-  
keta eta salmenta plazan.  
Toka txapelketa plazan.
- 14:30 Iñistor jaia, bazkari herrikoa Ja-  
kutegi plazan. Txartelak Bikain,  
Kantoi eta Gurian salgai.
- 16:30 Berto saioa Jakutegi plazan:  
Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazal-  
degi, Ane Labaka, Nerea Ibarza-  
bal. Gai jartzaile: Amaia Agirre.  
Iñistor jaia, Urnieta Prestu 2017  
izendapena Egape ikastolako ira-  
kasle aintzindariari.
- 17:30 Behor eta giza proba erakustaldia  
probalekuan.
- 18:00 Txekor jate solidarioa plazan, Pe-  
rurekin Gobernu Kanpoko era-  
kundearen alde.  
Sagardo dastaketa plazan.  
Dantzaldia: Lisker.  
Arratsalde akustikoa txosnagune-  
an: Olatz Salvador, Apalatxe eta  
Kike Tormenta.
- 18:30 Willy Etxeberria zesta punta me-  
moriala pilotalekuan:  
Lertxundi-Manzisor //  
Goixerri-Andonegi.
- 19:00 Iñistor jaia, Maria Arizmendi  
irrintzi lehiaketa plazan.
- 20:30 Dantza-soka herrikoa plazan,  
Egape DTK antolatuta.
- 21:00 Mielari agurra.
- 21:15 Zezen suzkoa.
- 21:30 Azken traka erretzea eta errome-  
riaren jarraipena.  
Jaien amaiera.

# 1948ko desafioa, NO-DO'n agertu zenekoa

**DENBORAN ATZERA EGIN ETA DUELA HIRUROGEITA HAMAR URTEKO URNIETA BIZIBERRITZEKO AUKERA IKUSGARRIA ESKAINTZEN DU RTVE ESPAINIAKO TELEBISTA PUBLIKOAREN WEBGUNEKO ARTXIBOAK.**

Bereizmen maila handiko irudiak dira, San Juan plazaren eraikinak eta plano ezberdinetan agertzen diren pertsona askoren aurpegiak ezagutzeko modukoak. Ziurtasun handiz esan daiteke NO-DOren grabaketa hori 1948ko San Miguel eguneko delatua. Urte bereko azaroaren 29an emititu zuten, eta 4:56 minutuan urnietar askoren begiak dir-dir jartzeko moduko erreportaitxoa hasten da (Esteka: <http://www.rtve.es/filmoteca/no-do/not-308/1467233/>). Desafio hartan, harria jasotzen, nor baino nor agertzen dira **Miguel Yurramendi** Trankatx baserri ezaguneko eta **Inazio Erkizia** Treku Enea etxeko. Plaza jendez betirik dago, baita plaza ondoko leiho eta balkoiak ere. **Saturnino Larburu** alkate zen orduan, eta desafioan epaimahaian agertzen da. Uneren batean desafioaren emaitza ageri da, plazan ipinitako arbelean idatzita. 'Gaztia'k 'Zarra' irabazi zuen hiru txandatan egindako lehian. Alde handiarekin nagusitu zen **Inazio Erkizia** Treku, hots, 'Gaztia'. Deigarria egiten da, euskara galerez zegoen garai hartan, arbelean ipinitako izenak euskaraz idatzita agertzea. Orduko hartan zein zen hizkuntza nagusia azaltzeko guztiz adierazgarria da. Desafioetan ezinbestekoa da protagonistak ondo bereiztea eta zenbakiak argi azaltzea. Arbelekoa esanguratsua da: Zenbakiak unibertsalak direla, eta euskara urnietarren unibertsoa.

Adinean gora doazenez NO-DO hitza aski ezaguna da. Espainia osoko zinema aretoetan emititzen zuten Frankismoaren propagandarako albistegia zen. 'Noticiarios y Documentales' izenburuaren akronimoa da, eta haien emisioa 1942 eta 1976 artean derrigorrezkoa izan zen, eta 1981era arte borondatetzkoa. Oro har, errejimenaren aldeko mezuak zabaltzen zituzten, eta tartea eskaintzen zieten Espainiako lur ezberdinetako gertaerei. 1948an NO-DOko lantalde bat Urnietara etorri zen eta honako pieza grabatu zuten: "Deporte vasco. Prueba de levantamiento de peso en Urnieta. Con piezas cilíndricas de cien kilos. Ignacio Erquicia, vencedor". Hainbeste denbora igarota, ikus-entzuzko pieza hori benetako altxor bilakatu da. Irudi aldetik kalitate bikainekoa da, audioa aldiz galdu egin da. Baina hotsik gabe ere, ikusgarri ageri da duela 69 urteko Urnieta hura.

Udal artxiboan jasota dagoen bezala, garai hartan jaiak izenburu luzearen pean ospatzen ziren: "Solemnes fiestas organizadas por el Ilustre Ayuntamiento de esta villa de acuerdo con el cabildo parroquial para conmemorar las festividades de San Miguel Arcángel y de Nuestra Señora del Rosario. Días 28, 29 y 30 de septiembre y 1º, 5 y 12 de octubre".



Inazio Erkizia Treku Enea etxeko. Desafioan, *Gaztia*.

Miguel Yurramendi Trankatx baserrikoa. Desafioan, *Zarra*.

## 'Gaztiak' 'Zarra' garaitu zueneko desafioa

"Deporte vasco. Prueba de levantamiento de peso en Urnieta. Con piezas cilíndricas de cien kilos. Ignacio Erquicia, vencedor" izenburupean erreportajea argitaratu zuten 1948ko azaroaren 29ko NO-DOan. Alde batetik, **Miguel Yurramendi Trankatx baserrikoa**. Desafioan, *Zarra*. Bestetik, **Inazio Erkizia Treku Enea etxeko**. Desafioan, *Gaztia*. Irudietan ikusten da ikusmin handia piztu zuela desafioak.



### Bideoa ikusteko aukera

Eskuko telefonoan ikusteko aukera dago, QR kodigoaren bitartez. 4:56 minutuan aurki daiteke desafioaren erreportajea.

ZARRA	GAZTIA
1 <sup>a</sup> tanda = 52	1 <sup>a</sup> tanda = 55
2 <sup>a</sup> tanda = 41	2 <sup>a</sup> tanda = 51
3 <sup>a</sup> tanda = 37	3 <sup>a</sup> tanda = 45
<b>Total 130</b>	<b>Total 151</b>

**1948an, ehun kiloko harri zilindrikoarekin hiru txanda osatu zituzten Yurramendik eta Erkiziak, plaza jendez gainezka zegoen desafioan**

#### GARAI HARTAKO OSPAKIZUNAK

1948ko aurreko eta ondorengo egitarauak ikusita, garai hartan San Miguel egunaren ospakizuna ez zen askotxo aldatzen. Goizeko zazpiretan **Etxeberria** anaiek txistularien dianari ekiten zioten, eta bederatzietan buruhandiak eta erraldoiak kalera ateratzen zituzten. 10:00etan abiatzen zen prozesioa, eta ondoren meza nagusia. Egun handiak sermoi berezia merezi zuela eta, hizlari onak eramaten ahalegindu ziren. Tarteka **Maximo Yurramendi** herrikidea bera. Abesbatza bazegoen herrian, orduko

hartan. Meza amaituta, 12:00etan apustua edo pilota partida antolatzen zuten. Bazkalostean, berriz, dantzaldia egiten zuten orkestinak lagunduta. Tarteka, trikiritxa. Eta jaiari amaiera emateko, zezen-suzkoa. Orduko hartan gauean ez zen ospakizunik antolatzen.

Meza eta gero kirol lehia antolatzeko ohitura zegoen. 1945an, esate baterako, **Santiago Lasartek** eta **Pedro Arrietak** korrika apustua egin zuten. 1947an, aldiz, **Joxe Garmendia** urnietarraren eta Segurako Etxeberria pilotari ezagunaren arteko buruz buruko partida. 1948an grabatu eta gorde diren irudi haiei esker, Trankatx baserriko gizonaren eta Treku etxeko gaztearen arteko desafioa betiko gordeta geratu da. Ikustaldi bat baino gehiago merezi duen dokumentua da, ez bairik gabe.

Irudiak ikusita, gizarte hari buruzko galderak bururatuko zaizkio bati baino gehiagori. Datu demografikoak irudien osagarri bilakatzen dira, horrelakoetan.

1950eko erroldak 2.647 biztanle bildu zituen, gehienak Urnietako herrigunetan. Lasarte-Orian (iraganean Urnietako udalerrria) ehunka bizi ziren, baina Urnietako kaskoan baino gutxiago. Baserria zen nagusi, eta ondorioz euskara hizkuntza. Populazioaren eraldaketa bortitza beranduago iritsi zen, 1960-1970 hamarkadatan. Zeharo aldatu zen, geroztik, Urnietako paisaia. Baita hizkuntza-oreka ere.

#### GIZARTE BIZITZA

##### DUELA HIRUROGEITA HAMAR URTE

Garai hura ulertzen ahalegintzeko datu demografikoez gain, garai hartako idatzietan gizarte bizitzaren kontu deigarri eta bitxiak aurki daitezke. 1949ko jai egitarauan, adibidez, Donostiako tranbia Urnietaraino luzatzea iradokitzen zuen kronista anonimoak: "(...) El apeadero del Norte cumple por medio de sus frecuentes trenes, el propósito de un traslado rápido a San Sebastián; pero



# San Juan plaza eta inguruko eraikinak jendez gainezka



Kontzejuzar



Dendaberri



Apaizetxea

## Kontzejuzar

Garai hartan, eraikinak eliza aldera atxekita zuen **Eulia enea** etxea. Ezaguna zen etxepean zuten tabernagatik. **Iñaki Alkain** bertsolariak makina saio eskaini zituen bertan. **Martxeli Gorriti** han bizi zen, eta elizako lanak egiten zituen. Besteak beste, kanpaia jotzea bere arduratakoa zen. Kanpaitik zintzilikatzen zen soka bere etxeko leihora iritsi eta bertatik jotzen zuen. 1970eko hamarkadan eraitsi zuten, errepidea zabaltzeko lanen baitan. Kontzejuzar izenez ezagutzen dan eraikinak balkoi bat gehiago du, gaur egun.

## Apaizetxea

**Mariaenea** izena zuen elizako sakristiaren pareko etxeak. Apaizak bertan bizi ziren. Bi apaiz etxe zeuden garai hartan, parrokoa gaur egungo errore etxean bizi zen eta beste apaizak aldiz Maria-

enean. Antza, garai hartan Urnietara etortzen zen apaizari etxeko lanak egiteko emakume bat jaritzeko ohitura zegoen. Gaur egun **Sarobe** antzokiaren aurrean legokeen eraikin hura eraitsi zuten.

## Dendaberri

Desafioan korredoreak ikusten dira, beraz, ikusleek apustu egiteko aukera izan zuten. Zaintzaille lanetan Guardia Zibilak ikusten dira ere.

Argazkia ikusita, bi datu aipagarri. Bertan bulegoak direnak iraganean Dendaberri etxea eta taberna izan ziren. Urtetan **Kontxi Zaldua** lanean aritu zen lanean. Urnietako jubilatu elkartearen lehen egoitza izan zen, hortik datorkio elkarteari izena.

Argazkian, "**Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa**" esaldia ikus daiteke armariaren azpian idatzita. Kutzak Udaletxean bertan bulegoa izan zuen, garai hartan.



Inazio Erkizia Treku Enea etxekoa harri zilindrikoarekin lanean. Eskuinean, epaimahaia. Ezkerrean, lehena, Saturnino Larburu orduko alkatea. Bigarren ilaran, behatza kokotzean duela Modesto Belaunzarán Ormaztegui baserrikoa ageri da. Plano ezberdinetan urnietar asko agertzen dira. Besteak beste, Tomas Elizegi edota Seberiana Arrieta.

*las lecheras y verduleras que montan al tren están pidiendo otra locomoción más holgada y reposada... Y no hay que pensar que sólo las lecheras y verduleras se beneficiarían con la creación de un tranvía en Urnieta. En otoño, época de sidra, fiestas de San Miguel, ferias de Hernani, para acarreo y tracción de materiales de construcción de San Sebastián y puerto de Pasajes... podrían señalarse considerablemente ventajas importadas y reportadas por el tranvía en Urnieta...".*

## BISITARIEN LEHENTASUNAK: SAGARDOA ETA ADARRA

Hiriburua, Donostia, ezinbesteko erreferentzia zen XX. mendearen erdialdean. 1945eko jai egitarauan argitaratu zen beste artikulu batean aipatzen zenez, Donostiarako 160 billete saltzen ziren egunero, eta autobusean lanera jende gehiago joaten zela erantsi ere. Kontrako norabidean, Beterri-Buruntza donostiar askorentzat erakargarri izaten zen. Ohitura zen oporraldian hiriburua utzi eta Hernanira edo Urnietara

hurbiltzea. Baziren orduan ere, gaur egunean bezalaxe, Urnieta ororen gaineratik erakargarri egiten zuten bi osagai: Sagardoa eta Adarra mendia. 1945ko uztan 600.000 litro bildu zituztela aipatzen da idatzi haietan. Adarra ere ikaragarri maitatua zen, Donostialdeko panorama ezin ederragoa ikusi zitekeelako. 2017an bizi garelarik, sagardoak eta Adarra mendiak erakargarritasun beretsua izaten jarraitzen dute. Joerak, denbora tarte luzea izanagatik ere, maiz ez dira hainbeste aldatzen.

## URNIETA, HERRI 'LASAIA'

Ea zer dioten gaur egungo urnietarrek, gizarte bizitzari dagokionez, 1945ean Urnieta ez zela oso herri animatua iradokitzen zenean: "(...) *Días excepcionales de animación extraordinaria son anualmente los de las festividades de San Miguel y de Nuestra Señora del Rosario, sobre todo el primer domingo de Octubre. No parece sino que se señala ese día para 'compensar' la no sobrada animación que en el transcurso del año se observa en este pacífico pueblo...*".



# Aurrera Gure Ametsa taldearen hitzorduak

LARUNBATEAN JALGI PLAZARA JAIALDIA, ETA IGANDEAN INGURUTXOA EL FORCAT TALDEAREN PARTE HARTZEAREKIN.



## INGURUTXOA

URRIAK 1, IGANDEA. 12:00. SAN JUAN PLAZA

Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak aurtengo jaietara Castello probintziako **Grup de danses El Forcat** dantza taldea gonbidatu du. 1978an sortua, euren folkloreko dantzak eta abestiak berreskuratzeko lanean ari dira. Igandean, dagoeneko tradizio bihurtu den Ingurutxoan, bi taldeek elkarrekin dantza egingo dute. Dantza saioan parte hartzera, noski, urnietar guz-

tiak gonbidatuta daude. Igandean ere, plaza inguruan, Castelloko produktuen azoka ipiniko dute, eta bbaita hango jantzien erakusketa ere.

## JALGI PLAZARA

Bezperan, larunbatean, XVI. Jalgi Plazara jaialdia ospatuko da Saroben. Bi taldeak zuzenean arituko dira, arratsaldeko 19:00tatik aurrera.

# Maldan gorako toka txapelketa

IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAK LEHEN HAMAR URTEETAKO DATU ESTATISTIKOAK BILDU DITU.

2007	1	Jose Antonio Arozena	Urueta	3
	2	Juante Odriozola	??	5
	3	Antonio Amundarain	Tolosa	4
2008	1	Antonio Amundarain (3)	Tolosa	6
	2	Prudentzio Olano	Usurbil	4
	3	Karmela Bengoetxea	Urnietza	3
2009	1	Karlos Irastortza (3)	Irun	5
	2	Prudentzio Olano	Usurbil	4
	3	Imanol Gartzia	Urnietza	3
2010	1	Karlos Irastortza	Irun	11
	2	Maria Jesus Olano	Usurbil	10
	3	Prudentzio Olano	Usurbil	5
2011	1	Antonio Amundarain	Tolosa	7
	2	Pedro M <sup>o</sup> Manzidor	??	6
	3	Karlos Irastortza	Irun	5
2012	1	Antonio Amundarain	Tolosa	5
	2	Prudentzio Olano	Usurbil	6
	3	Imanol Gartzia	Urnietza	5
2013	1	Eugenio Urruzola	Urnietza	5
	2	Antonio Amundarain	Tolosa	11
	3	Lourdes Urruzola	Urnietza	6
2014	1	Karlos Irastortza (4)	Irun	16
	2	Prudentzio Olano	Usurbil	14
	3	Jose Antonio Calvo	Urnietza	9
2015	1	Iraitz Diarbide	Urnietza	6
	2	Karlos Irastortza	Irun	7
	3	Pedro Diarbide	Euzko	5
2016	1	Jose Antonio Calvo	Urnietza	10
	2	Antonio Amundarain	Tolosa	8
	3	Roberto Ostolaza	Zarauz	9

URRIAK 1, IGANDEA. 12:30. SAN JUAN PLAZA

*Jaietako egitaraua Urnieta APPn*

*Eta jaien jarraipena aiurri.eus gunean*

**ARGAZKIAK BIDEOAK EGUNEZ EGUN**



# Egape ikastolako irakasle aitzindariak

**IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAK AURTENGO 'URNIETAR PRESTU' NOR IZENDATUKO DUEN IRAGARRI DU.**

## IÑISTOR JAIA

**URRIAK 1, IGANDEA. EGUN OSOKO OSPAKIZUNA**

Aurtengo *urnietar prestuak* Egape Ikastola orain 50 urte sortuz gero ikastolaren egitasmoa aurrera ateratzen ahalegin berezia eta jarraitua urtetan egin duten irakasleak dira, hamar lagun denetara. Aintzat hartu behar da 1967. urtean Egape ikastola zela Urnietan eskolak euskaraz ematen zituen ikastetxe bakarra, herriko hainbat gurasoren ekimenez sortua, eta traba eta oztopo ugari gainera, inolako laguntza ofizialik gabe, aurrera atera zena, guraso, herriko ekintzaile eta, bereziki, urte zail haietan eta ondorengoe-tan ikastolara lanera bildu ziren irakasle-ahaleginari esker.

Honakoak dira Urnietar Prestu 2017 saria erabaki duen epaimahaiak aintzatzotzat izan dituen merezimenduak:

- Egape ikastolaren hasierako hamarkadetan, ikastolaren egitasmoari hezurdura eta mamia emateko ohiko lan-jardunaz kanpo egin zuten musutrukeko eta borondatezko lan bikainagatik.
- Euren ardurapean hezi ziren ikasleengan ikastolarekiko jarrera arretatsu hori beraxe kutsatu izanagatik.
- Ikastolaren hasiera hartako urteetan finantzabidearen kudeaketa gurasoekin batera egin izanagatik, eskura zegoen dirubide oro jorratuz.



**Igandeko bazkarirako txartelak erosteko azken eguna irailaren 28a da, osteguna. Kantoin eta Bikainen eskuragarri daude**

- Urnietako ikastolaren inguruko herri mugimendua suspertzen lagundu izanagatik, Euskal Herrian barrena hezurmamitzen ari zenarekin neurritzuztartzuz.
- Alor pedagogikoan egin zuten ahalegin bikainagatik.

# Irrintzi lehiaketa

Bederatzigarrenez antolatuko da **Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa**. Igandean izango da, arratseko zazpitan hasita San Juan plazan. Lehiaketa parte hartu nahi duen ororentzat zabalik dago eta bi mailatan banatuko da: atal nagusia edo helduena, 14 urtez gorakoentzat eta gaztetxoentzat, 14 urtez beherakoentzat.

Irabazleak garaikurra eta 300 euroko saria izango du. Bigarrenak, garaikurra eta 100 euroko saria. Urnietarren irrintzirik txukunenak ere jasoko du bere saria, garaikurra eta 50 eurokoa. Sari hauek guztiak helduen atalean. Haurren atalean, berriz, garaikurrekin batera sari ekonomiko apalagoa jasoko dute. Sariak erabakiko dituen epaimahai lau lagunek osatuko dute eta, besteak beste, inda-



rra eta ozentasuna, abiadura, tonua, garapena eta kolpe bakarrekiko irrintzia izango dira aintzatzotzat hartu beharko dituen ezaugarriak.

# Xoxokako jaiak, urriaren 2an hasita

**OSTIRALETIK IGANDERA BEROGAILU SISTEMA DUEN KARPA IPINIKO DUTE PLAZAN.**



lazko gau sorpresan partaide izan ziren auzotarrak.

## Urriak 2, astelehena

- 12:00 Jaien hasiera.
- 12:30 Herri kirolak: Telleria eta Mugerza anaiak elkarren aurka. Ondoren Elustondo anai-arrebak.
- 14:00 Bazkaria Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin Adarra jatetxean. Txartelak bertan salgai.
- 21:00 Afaria Xoxokako eskolan, bakoitzak berea eramanda.
- 23:00 Dantzaldia Elustondo anai-arrebekin, Xoxokako eskolan.

## Urriak 3, asteartea

- 17:00 Idi-asto proba: Joxe Mari Elolaren idiak (Egues baserria) Eneko Seinen astoen aurka ariko dira.
- 20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan, jatekoa norberak eramanda. Edaria dohainik.
- 23:00 Gau sorpresa.

## Urriak 6, ostirala

- 18:00 Xoxokako XI. Toka txapelketa. Izen ematea 17:30ean.
- 20:30 Bertso afaria Xoxokako plazan Alaia Martin eta Sebastian Lizaorekin. Txartelak Adarra, Zelai eta Xauxar tabernetan salgai.
- 01:00 Emengattun erromeria.

## Urriak 7, larunbata

- 11:00 Hamaiketako Xoxokako eskolan, auzoko adinduetzat doakoa. Ondoren Haritz Mujika eta Mikel Artola bertsolariak.
- 11:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.
- 12:00 Segar apustua: Julen Gabirondo eta Jon Otegi, Suharri Irazustabarrena eta Iñigo Merkaderren aurka. Ondoren gaztetxoentzat sega erakustaldia.
- 16:00 Mus Azkarra Xoxokako eskolan. Izen ematea, 15:00etan hasita.
- 16:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.
- 17:00 Gorriti eta bere animaliak. Jarrarian txokolate jatea.
- 20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan. txartelak Adarra, Zelai eta Xauxar tabernetan salgai.
- 01:00 Gaupasa Fan&goren eskutik.

## Urriak 8, igandea

- 12:30 Meza nagusia. Ondoren Egape dantza taldearen saioa.
- 17:30 Auzokideen arteko herri kirol lehiaketa.
- 18:00 Sagardo probaketa: Oianume, Setien, Eula, Elutxeta, Otsuarena eta Elorrabi.
- 20:30 Festen amaiera.



Sagardo dastaketa jaietako amaiera emateko hitzordu proposa da. Irudian, hainbat laguntzaile.





# Sanmielak

2017 URNIETA

## Urriak 1 XI. Inistor jaia jakutegi plazan

**BAZKARIRAKO  
TXARTELAK  
KANTOIN ETA  
BIKAINEN  
SALGAI**

**12:30 XI. Maldan-gorako Inistorra  
Toka Txapelketa. San Juan plazan**

**14:30 Herri bazkaria.**

**16:30 Bertsolariak.**  
Uxue Alberdi (Getaria).  
Nerea Ibarzabal (Markina).  
Ainhoa Agirreazaldegia (Zarautz).  
Ane Labaka (Lasarte-Oria).  
Gai jartzailea:  
Amaia Agirre (Villabona).

**17:30 "Urnietar Prestu" 2017 izendapena  
Egape ikastolako irakasle aitzindariak**

**19:00 IX. Maria Arizmendi  
irrintzi lehiaketa. San Juan plazan**

**Helduentzako menua  
(25 euro)**  
• Errusiar entsaladilla  
• Itsas-kabra  
• Karnilerak  
• Hojaldrea  
• Kafea  
• Belar txupittoa, whisky  
edo patxarana.

**Haurrentzako menua  
(16 euro)**  
• Makarroiak tomateari  
eta urdaiazpikoarekin  
• Eskalopea txip  
patatekin.  
• Sandwits izozkia.

**Bazkarirako txartelak  
aurrez erostea  
ezinbestekoa da.  
Azken eguna:  
irailaren 28a.**

Jadanik salgai daude  
ondorengo lekuetan:

**URNIETAN**  
KANTOI taberna (San Juan plaza)  
BIKAIN kafeategia (San Juan plaza)  
GURIA taberna (Biluzteko kalea)





## ANDOAIN AUZOZ AUZO, PARTE HARTZE PROZESUA

# Parte hartze bizia Bazkardo auzunean

Andoaingo Udalak abian jarritako prozesuan Bazkardo-Kaletxikin, Alejandro Calonjen, Sorabilla-Bordaberrin eta Karrika-Etxeberrietan bilerak egin zituzten irailaren 20tik 25era. Makina bat proposa-

men eta kexa egin zituzten auzotarrek. Udal ordezkariak, hainbat gai erantzuna eman eta gero, jasotako eskaera guztiak aztertu eta erantzuna emateko konpromisoa hartu zuten.

## Irailak 20, asteazkena Bazkardo-Kaletxiki

Jende ugari bildu zen Bazkardoko frontoian egin zuten bileran, ordura arte egindako bilera guztietatik jendetsuena eta parte hartzaileena izan zelarik. **Ana Carrere** alkatea eta Udal Gobernuko **Jon Zulueta**, **Esti Mujika**, **Ainara Rodriguez** eta **Pedro Unanue** Gobernu taldearen izenean aritu ziren. Entzuleen artean **Mari Jose Izagirre** EAJko zinegotzia eta **Olga Hernandez** Ganemoseko zinegotzia ere bertan izan ziren.

Tamaina handiko, ertaineko eta txikiko eskaerak entzun ahal izan ziren Bazkardoko topaketan. Handienen artean Ziako erreka saneamendua eta Bazkardo auzunearen biziberritzea. Saneamenduari dagokionez, Udalak urteak daramatza eskaera eginez erreka arduraren Eusko Jaurlaritzaren menpeko Ura Euskal Agentziari. Hurrengo urteetako Plan Hidrologikoan txertatuko dute itxaropena agertu zuen alkateak.

Auzotar askoren ahotan nabaritu zen Bazkardo bazterrean utzitako auzoa den sentsazioa. Auzotar batek auzunearen biziberritzea eskatu zuen, hainbat alor aipatuz: merkataritza, leku publikoak, hormen estetika... Eraikin asko duela 50 urte baino gehiago eraiki ziren, eta bertan bizi diren pertsona asko urtetan aurrera doaz. Udal ordezkariak kasu askotan erantzunak eman zituzten, eta guztiak gogoan hartuko zituztela agindu zuten. Bazkardon hiruzpalau hilabete barru bilera berria deitzeko konpromisoa hartu zuten. Kexa nagusien zerrenda honakoa izan zen:

- Bosgarren edukiontziko poltsak oso ahulak dira.
- Urtetan atzeratzen ari den Ziako erreka saneamendua.
- Ama Kandidako errepidean ez da lortu autoen abiadura moteltzea.
- Kale Txiki: edozein tokitan uzten dira autoak, Berrozpeko ikastetxeko ikasleak sartu eta irteteko orduetan.
- Etxebizitzaren katastroko balioa gehiegi igo izana.
- Frontoia margotzeko premian da ezker pareta.
- Frontoi atzeko bide aldapatsua garbiago eduki, eta barandilla ipini.
- Zuhaitzak, belardiak eta parkea gehiago zaindu.
- Zakur kakak.



Bazkardo auzunean jendetza bildu zen irailaren 20an.

- Udaltzainen zaintza handitu auzo osoan.
- Ama Kandidako taberna inguruetan zaintza areagotu, autoak ez daitezkeen edozein tokitan utzi.
- Argiteria kopuruan handitu zenbait gunetan.
- N1 eta N15 errepideek eragiten duten zarata akustikoa.
- Eskailera mekanikoak, garbiago eduki.

## Irailak 21, osteguna Alejandro Calonje

Auzoko plazan bildu ziren, berehala auzoari itzulingurua emateko; auzotarrek ze nolako eginbeharrak ikusten zituzten adierazteko aukera baliatu zutelarik. Hona zenbait:

- N1 errepideak eragiten duen zarata akustikoa.
- Auzo guztien seinalizazioan sakondu behar da, trafikoari begira.
- Zuhaitz askok erretxina edo txori-negarra botatzen dute eta azpian dauden autoak zikintzen dituzte.
- Plazan jarri diren farola berriek argi gehiegi ematen dute, eta aldiz, etxebizitzaren kanpoaldean gutxiegi.
- Autobus geltokia auzoaren sarreran jarri.

## Irailak 22, ostirala Sorabilla-Bordaberi

Sorabilla-Errotagain auzo elkartearen egoitzan egin zen bilera. Hona bizilagunek mahairatu zituzten zenbait gai:

- N1 errepideak eragiten duen zarata akustikoa.
- Hainbat baserriren ur-horniduran dauden arazoak, AHTren obren ondorioz iturrien agortzea dela-eta.
- Sorabillan jasaten den usain txarra, inguruko industriek eragindakoa.
- Sorabillako sarrerako debekuzko seinalea handitzea kamioiei begira batez ere, plazara sartzen segitzen baitute.
- Garbiketaren sakontzea, estolderiak hostoz betetzen direnean batez ere.
- Bordaberi auzorako oinezko bide txukun baten premia.
- Bordaberi auzorako seinaleztapenaren sakontzea.

## Irailak 25, astelehena Karrika-Etxeberrieta

Karrikako elkartean egin zen bilera. Bertaratuen artean gehiago ziren Karrika aldekoak, eta hori nabaritu egin zen gaiak mahairatzeko orduan. Hona biztanleek aipatu zituzten zenbait gai:

- Karrika kaleko zuhaitzek adarrak oso luzeak dituzte, mozteko beharra. Aiz-

tondo kaleko zuhaitzek erretxina edo txori-negarra botatzen dute eta azpian dauden autoak zikintzen dituzte.

- Karrikan jarri diren argi berriak ondo daude, baina zuhaitzak direla-eta, ez dute behar bezala argizatzen.
- Aiztondo kalea: zenbait auto abiadura handiegian ibiltzen da.
- Ludoteka pareko pasabidean putzuak sortzen dira euria egiten duenean.
- Karrikako papertegi batzuk hautsita daude.
- Istuitza dorrearen atzealdeko lur saila txukundu beharko litzateke.
- Martin Ugalde kalea: zenbait auto abiadura handiegian ibiltzen da; oso estua da bi auto batera gurutzatzeko, norabide bakarrekoa behar luke izan.
- Miranda pasealekua: arrauparen bat falta da mugikortasun mugatuko pertsonentzat batez ere; eskuleku edo barandillak jarri beharko lirateke gai aldeko pasabidean; baldosa batzuk solte daude; zakurrek kaka egiteko jarritako zelaia txukundu.

Parte hartze prozesua Goikoplazan amaitu zen irailaren 27an, asteazkenean, auzunean eta inguruan bizi diren bizilagunekin.





## KIROL ALBISTEAK

# Urnieta KE futbol taldea abiatu da

Irailaren 16an taldeen aurkezpen ekitaldiarekin denboraldi berriari hasiera eman zioten. Preferente mailakoek egunean bertan ekin zioten ligari, eta ondorengo asteetan gainerako taldeek.

Futbola herrikide gehien erakartzen duen kirol jarduera da, astero-astero jokalariaik, prestatzaileak eta gurasoak kontuan hartuta, ehunka lagun mugiarazten baitu.

### URNIETA PREFERENTE MAILAKO TALDEA | 2017-2018. denboraldia | Babeslea: Imanol Lasa eraikuntzak

1. Aitor Aramendi Izeta
  2. Aitor Harto Villaverde
  3. Alberto Garcia Lete
  4. Dennis Torrecilla
  5. Endika Garcia Perez
  6. Eneko Ramirez Gonzalez
  7. Ibai Garmendia Barrenetxea
  8. Iker Ramos Prieto
  9. Imanol Andres Martin
  10. Iñigo Esnaola Rekondo
  11. Ivan Diaz Iribar
  12. Juan Carlos Solis Rosco
  13. Mikel Garmendia Barrenetxea
  14. Mikel Miranda Taberna
- Entrenatzaileak:  
Jon Izagirre eta Aritz Reguro.



### URNIETA SENIOR NESKAK | 2017-2018. denboraldia | Babeslea: Aballarri

1. Alba Cabrera Jauregi
  2. Amaia Arenas Adarraga
  3. Ane Arozena Lekuona
  4. Ane Dominguez Espino
  5. Ane Etxebarria Izagirre
  6. Elena Soroeta Lopez
  7. Enara Pellejero Gonzalez
  8. Garazi Urio Garmendia
  9. Haizea Belaunzaran Santamaria
  10. Irene Manso Fernandez
  11. Itziar Alzuguren Almorza
  12. Leyre Larrañaga Moran
  13. Lorea Barkaiztegi Begiristain
  14. Lorena Arias Ciapponi
  15. Lorena Busto Romero
  16. Maialen Diez Rezola
  17. Marta Ollakarizqueta Solana
  18. Nagore Huizi Soto
  19. Naroa Garcia Rodriguez
  20. Olatz Goya Ostolaza
- Entrenatzaileak:  
David Sierra eta Pablo Freisouli.







## KIROL ALBISTEAK

### URNIETA JUBENIL MAILAKO TALDEA | 2017-2018. denboraldia | Babeslea: Tefridi



1. Aimar Ruiz Mangas
  2. Aitor Larbide Carralero
  3. Andoni Almorza Eizmendi
  4. Andoni Izagirre Goenaga
  5. Andoni Oyarzabal Cortajarena
  6. Aritz Lekuona Alcala
  7. Asier Lozano Fernandez
  8. David Galan Arias
  9. Diego Carballada Martinez
  10. Edorta Ibargoien Olinaga
  11. Ekain Cachafeiro Petrina
  12. Ibai Sanchez Garcia
  13. Iñigo Diaz Moriones
  14. Jon Iribar Sorrondegi
  15. Jon Ander Perez Boquete
  16. Joseba Vela Flores
  17. Kevin Iraola Gallego
  18. Miguel Lajas Garcia
  19. Oier Jimenez Urdangarin
  20. Sergio Fernandez Gonzalez
  21. Unai Aparicio Robles
  22. Xabi Garmendia San Sebastian
- Entrenatzaileak:  
Pablo de Torres, Ivan Murillo eta Iñaki Etxenike.

### Aurre denboraldiko txapelketa



Kadete mailako jokariak txapelketa irabazi ostean, joan zen larunbatean.

Leizaran eskubaloitako taldeak aurre-denboraldiko txapelketa antolatu zuen, joan zen larunbatean. Arraten eta Allurralden jokatuak partidatan Andoaingo infantil, kadete, jubenil eta senior mailako taldeak Tolosako,

Usurbilgo, Donibaneko eta Gasteizko taldeen aurka lehiatu ziren. Kadete eta senior mailan etxeokak nagusitu ziren. Infantil mailan, berriz, Tolosa CF. Eta jubenil mailan Gasteizko Co-razonistas taldea.

### Futbol taldeen emaitzak

#### PREFERENTE MAILA

##### Bigarren jardunaldia:

Urnieta 1-0 Sanpedrotarra  
Euskalduna 0-0 Orioko

##### Hirugarren jardunaldia:

Urnieta-EAS 08  
Deusto-Euskalduna

##### Sailkapena:

1. Urnieta 6 puntu

#### JUBENIL MAILAKO MUTILAK

##### Bigarren jardunaldia:

Euskalduna A 3-2 S.Tomas A [3. multzoa]  
Urnieta B 0-2 Trintxerpe [3. multzoa]  
Baskonia 2-0 Euskalduna B [4. multzoa]  
Lengokoak 1-3 Urnieta A [5. multzoa]

##### SENIOR MAILAKO NESKAK

##### Lehen jardunaldia:

Intxaurdi 2-1 Urnieta

### Eskalada irteera Aritxulegira



Urriaren 3a baino lehen izena eman beharra dago Xauxar tabernan.

Zanpatuz mendi elkarreak irteera antolatu du Aritxulegira, eskalada saioa egiteko asmoz. Hasiberriei zuzenduriko jarduera izango da, baita ordura arte sekula eskalatu ez dutenentzat ere. Mendi elkarteko kideek irteera antolatzear gain, materiala eramango dute.

Norberak berea eramateko aukera dauka, hala ere. Eguraldi txarrarekin, irteera urriaren 22ra atzeratuko dute.

#### URRIAK 7, LARUNBATA

09:00 San Juan plaza.

Izen-ematea: Xauxar.

### Saskibaloia martxan hasi da



Ganbara saski taldeak aste-roko lehiari ekingo dio asteburu honetan. Saski partidak itzuliko dira, beraz, Allurralde kiroldegira.

#### AURREKO JARDUNALDIA:

Astigarraga 61-53 Ganbara Senior

#### ASTE BURUKO PARTIDAK:

##### Ganbara Seniorrak-Hernani

Larunbata, 30. 19:15. Allurralde.

##### Ganbara Kadeteak-Hernani

Adiskidantzako partida.

Larunbata, 30. 11:30. Allurralde.

##### Ganbara infantilak-Easo

Larunbata, 30. 10:00. Allurralde.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi  
Kultur Buzkaria

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URRIETA UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu. publicitate@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 6.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urrieta).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

IRAILAREN 28TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

## Jaiak

**Urrieta**

■ **Sanmielak:**

Irailak 28-Urriak 1. Egitaraua gehigarrian.

■ **Xoxokako Jaiak:**

Urriak 2-8. Egitaraua gehigarrian.

## Hitzordua

**Andoain**

■ **Iban Garcia** Youtuber ezaguna Andoainera hurbilduko da, 14-18 urtekoei zuzenduriko jardueran. 11:00-13:00 Liburutegia. Irailak 30, larunbata.

## Kontzertua

**Andoain**

■ **"Musikazuzenean fest!":** Porco Bravo, Sermond's, Mundu Unplugs The Ramones. 22:30 Gaztetxea. Irailak 30, larunbata.

## Kale giroan

**Andoain**

■ **Maduixa Teatre:** "Mulier", kale antzerkia. 18:30 Goikoplaza. Irailak 30, larunbata.

■ **Triplette konpainia:** "Les P'tits bras", zirkoa. 19:30 Goikoplaza. Irailak 30, larunbata.

■ **Hortzmuga:** "Femmes", antzerkia. 12:30 Bastero plazatik Zumea plazara. Urriak 7, larunbata.

## Zozketa

**Urrieta**

■ **Ehiza postuak:** Goibieta eremua. 20:00 Frontoia, taberna. Irailak 30, larunbata.

■ **Otsolepo eremua:** 20:00 Santa Kruz elkarte. Urriak 6, ostirala.  
Xoxoka eremua: 06:30 Xoxokako frontoia. Urriak 7, larunbata.

## Ikastaroak

**Andoain**

■ **Jabekuntza eskola** Urigainen. Ikastaro guztiak dohainik. Izen-ematea Urigainen: sbarrenetxea@andoain.eus. 943 300 850 / Luz: 397.

■ **Batukada feminista**

Urria-Abendua. Lehen hitzorduak: Urriak 2, 16, 30. 19:00-20:30.

■ **Rap**

Urria-Abendua. Lehen hitzorduak: Urriak 16, 30. 17:00-19:00.

■ **Teoria feminista**

Urria-Abendua. 2 orduko 10 saio.

■ **Adimen emozionala**

Urria-Azaroa. Lehen hitzorduak: Urriak 2, 10, 17. 18:00-19:30.

■ **Autodefentsa**

Azaroak 18, larunbata. 10:00-14:00 / 16:00-20:00.

■ **Elkargune kultur anitza**

Urria-Abendua. 10:00-12:30.

**Urrieta**

Lekaion eskaintzen diren ikastaroetan izena emateko epea urriaren 3an amaituko da. Ekaintza:

■ **Helduak:** Joskintza I, II eta III, puntu eta kakorratza, eskulanak, marrazketa eta pintura, zur taila eta otargintza.

■ **Haur eta gaztetxoak:** Argazkigintza (8-12 urte), eskulanak (+5 urte) eta marrazketa eta pintura (+5 urte).

Matrikulazioa:

Bertan: 07:30-14:30.

Lekaio: 09:00-13:00.

16:00-18:00.

**Andoain**

■ **Mintzalaguna, gurasolaguna:** Euskararen erabilera areagotzeko saioak prest dira. Izen-ematea: andoain@aek.eus. 943 591 704.

**Andoain**

■ **Galdaragintza** ikastaroa La Salle Berrozpe ikastetxean, Lanbidek diruz lagundutakoa. 640 ordukoa, langabetuei zuzenduta dago.

Ikasturtearen hasiera: Urriak 9.

Izen-ematea:

La Salle Berrozpe. 943 590 557.

## Ikuskizuna

**Urrieta**

■ **La Liquida Teatro:** "Hambre".

Antzerkia, musika eta gastronomia uztartzen dituen ikuskizuna da. Bertaratzen direnek antzerkiak, musika eta Basque Culinary Center-eko bi sukaldariren afari goxoaz gozatzeko aukera izango dute. Sarrerak salgai urriaren 2ra arte, 8 eurotan. 20:00 Sarobe. Urriak 8, igandea.

## Farmaziak

**Andoain**

■ **Pajares:** Zumea kalea, 20.

Gauetz:

Etxebeste (Hernani).

**Urrieta**

■ **Gomez Justel** (Hernani):

Kale Nagusia, 14.

Gauetz:

Etxebeste (Hernani).

Irailak 30, urriak 1.

## Jaialdia

**Andoain**

■ **Presoen aldeko eguna** Sareren eskutik, Andoaingo Gaztetxean.

Egitaraua:

**18:00** Porrotx pailazoa (3 euro).

**19:00** Pintxo-pote berezia.

**23:00** Sutagar (8 euro).

Sarrerak salgai:

Ernaitza, Xauxar.

**01:00** DJ Mai.

Urriak 7, larunbata.

## ZORION AGURRAK

ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK



Irailaren 30ean hama-bi urte **Eneko**, a ze mutil puska! Zintzo eta alai jarrai ezazu. Besakarda potoloa.

ANDOAIN



Irailaren 26an 7 urte bete zituen **Maddi** etxeko surfariak. Zeinen azkar pasatzen den bora. Mila muxu.

ANDOAIN



Irailaren 30ean urteak beteko ditu **Jokin**ek. Zorionak! Muxu handi bat etxeko enpartetik.

URNIETA



Irailaren 29an **Maddi** gure printzesak 5 urte beteko ditu, eta primeran ospatuko dugu. Milakamuxu, etxeokak.

ANDOAIN



Urriaren 13an **Irenek** 8 urte beteko ditu. Ondo pasa ezazu! Muxu erraldoiak etxeko printzesari. Etxekoak.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK AIURRIN:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

## MERKATU TXIKIA

**LANA.** Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresetarako klaseak. 665 71 98 27 | 943 008 059

## 'Kalegiroan' Andoainen

Andoaingo kaleak musikaz, dantzaz eta antzezpenez betetzen ari dira. Joan zen larunbatean kale antzerkiak eta dantza bertikalaz gozatu eta gero, erakustaldi gehiago iragarrita daude datozen bi asteburuetarako.



hitz, herria, erabakia

**GALDEKETA FEST**  
ANDOAIN ESAN

Txalapartariak eriltzua jani  
Maier, Maddi eta Garazk dolua  
Aibokarien dela eta dantzarien oihartzuna  
Biolinen dialektika adostasunaren bila

**Galderaren aurkezpena**  
Abesbatzatalako kideekin kantuan

**URRIAK 1 - 12:00TAN**  
SANTAKRUZ ERMITA PAREKO ESPIGOJIAN  
JATEKOA ETA EDATEKOA BERTAN

ANDOAIN ESAN